

## Filosofiaren Historia

Filosofia


Kordoi Etxea

2019ko urriaren 1etik 2020ko otsailaren 27ra arte

+55 jarduera

Astearte eta ostegunetan 10:00etatik 11:30era

BETETA



Filosofia oso zaila dela uste dute zenbait pertsonak, hau da, adituentzat baino ez den gaia. Hori uste erabat okerra da, ordea. Gizaki oro da filosofo, izan ere, jakin-gura badugu, denok planteatzen dizkiogu geure buruari unibertsoari buruzko galdera eta arazo bitalak, baita bizitzaren zentzuari buruzkoak ere. Era berean, guztiok bilatzen dugu hobeto eta zorientsuago bizitzeko modua, bai banakako mailan, bai maila kolektiboan. Hori filosofia da.

## Deskribapena

Horregatik, ikastaro hau jakin-gura duten eta partekatu nahi duten eta gainerakoekin solasean aritu nahi duten pertsona guztientzat dago eskuragarri. Ikastaroan zehar filosofo grekoekin eta euren kulturarekin hitz egingo dugu; erdi aroko eta egungo pentsalariekin

eztabaidatuko dugu, ikerketa eta hausnarketa horren bidez, gure garaian, gure munduan eragiten digun eta kezkatzen gaituen guztiari buruzko gure pentsaera propioa eraikitzeke. Hartara, antzinako pentsaera, erdi arokoa eta modernoa, gaur egun kezkatzen gaituzten arazoekin uztartuko ditugu, ikuspegi aberatsagoa eta konplexuagoa lortzeko, zehaztasun eta eraginkortasun handiagoz bizitzea eta pentsatzea ahalbidetuko diguna eta, ondorioz, mundu hobeia eraikitzeke tresnak emango dizkiguna.

## Gai-zerrenda

- Mundu greziarraren hastapenak
- Greziako lehenengo filosofoak: presokratikoak
- Filosofiaren baldintzatzaile sozioekonomikoak Atenasen
- Sokrates
- Platonen pentsamendua
- Aristoteles
- Pentsamendu helenistikoa
- Testuak (filosofia zer den argitzeko, filosofo presokratikoak, Platon, Aristoteles, Epikuro, estoikoak)
- Erdi Aroko filosofiaren aurrekari historiko eta filosofikoak
- Erdi Aroko filosofia
- XII. mendeko filosofo garrantzitsuak
- Aristotelismo kristaua
- Filosofia kritikoa
- Erdi Aroko beste filosofia batzuk

## Izena emateak

Kordoi Etxean (Aiztogile, 24) 2019ko irailaren 2tik aurrera.

Prezioa: 40 €/ lauhilekoa.